



OLENTZAROREN BASOA

1. TESTUINGURUA

2018az geroztik, Zumardia Elkartetik badago gaur egungo Eguberrien jatorri eta zentzua berreskuratzeko nahia. Honen harira antolatu izan da Olentzaroren basoa Elosegi parkean.

Beste behin, Juan Kruz Igerabideren "Eguberria" liburua izan dute ardatz eta ospakizunaren jatorria, ohitura, kantu eta istorioak izango dira nagusi. Orohar, Eguberriari buruzko ikuspegi kultural eta antropologikoari eutsi nahian, egungo Eguberriek duten kontsumismoa alde batera utziz eta norbanakoak bizi dituen Eguberriei erreparatuz: falta direnen oroitzapenak, ahozko kultura, literaturaren tradizioa, maitasunezko natura eta beste hainbat ekarpenekin jantziko dituzte bisita gidatuak.

Ekimen hau aurrera eramateko hainbat herritar, guraso eta ikasleen borondatezko partaidetza gauzatzen da, auzolanean, Tolosako komunitate sentimendua sendotuz.

2. XEHETASUNAK

Lekua: Elosegi Parkea

Egunak: abenduan zehar astebetez

Iraupena: Ordubete

Egun bakoitzerako plana:

- Arratsaldeko 17.30etatik gaueko 21.30etara
- 30 minutuero talde bat sartuko da (guztira 8 talde/eguneko)
- Taldea gehienez 20 lagunekoa
- Guztira 1120 ikusle



TOLOSAKO
UDALA

Guneak:

Kontakizunean espazioak berak eskaintzen dituen elementuak txertatuko dira; hala nola, zuhaitz espezifikoak, ura, lurra, egurra, iturria,... Ibilbidean zehar, guztira 8 bat geldiune egingo dira, zeinetan kontakizunaz gain, ikusleekin interakzioan aritzeko proposamenak egongo diren:

1. GUNEA: Sarrerako atetik gertu dagoen zabalunea. Taldeari harrera egin eta Olentzero garaia solstizioan kokatuko duen kontaketa.
2. GUNEA: Kobazulo txikia. Ama-lurrari erreferentzia.
3. GUNEA: GAZTAINEN TXOKOA. Eguberritako zuhaitzei buruzko kontaketa eta gaztaina banaketa.
4. GUNEA: OLENTZEROREN TXOKOA. Gutunak uzteko gunea eta Xukilaro eta Olentzero mokorraren kontaketa.
AURRERA DOAN BIDEAN: mihuraren ohitura.
5. GUNEA: URA. Urarekin loturiko ohitura eta kondaira zaharrak. Eske kantua.
6. GUNEA: BEGIRALEKUA. Amaiera eta agurra. Datorren urteari desio eskaera.